



BULETINA

JOAN-ETORRIKO ELKARTASUNA, INTERNAZIONALISMOA
ETA GARAPENERAKO HEZKUNTZA

eilastasuna.steilas.eus



Egin eilastasuna kide [hemen](#) klik eginez!

Araucania, Maputxe Herria, TXILE

Escuelita libre
Kimche-Pertsona jakitun elkarte



COVID19a Txilera iritsi da ere bai, Escuelita Libreko zonaldean (Likan Ray, Coñaripe, Panguipulli...) egoera oso larria ez izan arren eskolak itxiak daude, aurrez aurreko irakaskuntza etendu da eta eskolara itzultzea zalantzarria da oraindik.

Aldi honetan, Maputxe komunitateko hauetako zenbait emakume fruitu eta ondo bilketan ibili dira elikagaiak jasotzeko, segurtasun neurriak zainduz elkartze masiboak ez baitaude baimenduak. Beraz, egoera honetan, Eilastasunaren laguntzarekin Escuelita Libren egingo ziren proiektuak eten egin dira normaltasunera itzultzen diren arte. Ideiak eta proiektuak bizirik daude, indaberritzen etxetik ateratzeko aukera dutenerako.



Artea, EUSKAL HERRIA

Artea Sarea eskola

Artea Sarea elkarte



Artea sarean, %40-60 adin txikikoak dira. Administrazioak eskolatze ez ohiko honetarako, ohiko baliabide eskasak eskaini ditu. Ikasle horiek dakarten “motxila” oso astuna da kasu askotan: bidaiaren ondorioz edo/eta izan duten eskolatze falta edo/eta bizi izan dituzten gatazkengatik. Horri gehitu egiten zaio, askotan, eskola horretan hilabete batzuk baino ez direla egongo.

Denok dakigu, eskola publikoa ez dela erabat doakoa eta gastuak anitzak direla. Ikasle horien kasuan, beharrezko egoera administratiboa betetzen ez dutenez ezin dute bekarik eskatu.

Eilastasuna funtsarekin, Ikasle horien material beharrak sostengatzen ari gara. Eskola ordutegitik kanpo ere laguntza jasotzen ari dira: hizkuntza indartzeko jolas antolatuak, etxerako lanak bideratzeko, eta batez ere, behar duten laguntza psikologikoa bideratu ahal izateko eta noizbehinka txangoak egin ahal izateko.



Nkabika, ZANBIA

Nkabika komunitateko umezurtzen eskolatzea.

Kauseni Kabwe



Nkabikako proiektua momentu honetan geldirik dago Koronabirusaren krisia dela eta.

Egun Zanziako ikastetxe guztiak itxita daude, agintariek bestelakorik esan arte. Nkabika proiektua daraman taldea egunotan bilduko da egoeraren balorazioa egiteko eta komunitatean eskola irekitzen denean aurrera eraman beharko diren neurriei buruz hausnartzeko.



Gamharia, NEPAL

Dalit kastako komunitatearen garapena
Bideitzen elkarte



Nepalen oraindik ere birusaren eragina handia izan ez bada ere, Indiako mugatik hurbil dagoenez eta Indiak ezarritako neurri gogorretatik ihes, bertatik muga zeharkatu dutenen kopurua handitu da. Horren aurrean Nepaleko gobernuak etxeratze agindua (toque de queda) eman du eta polizia gogor jazartzen ari zaio kalean dabilen jendeari.

Horren guztiaren ondorioz, eskola eta emakumeen ahalduntze proiektua momentu honetan geldirik dago eta irakaslea etxez-etxe hurbiltzen ari da haien berri izateko.

Familia batzuei, egoeraren larritasuna medio, aurten proiekturako bideratutako diru laguntzarekin janaria helarazi zaie.



Buikwe eta Mukono distrituak, UGANDA

Saluganda, eskola iraunkorrak

Coghoc-Saluganda elkartea



Ugandan, momentuz, kasu positibo gutxi konfirmatu dira, hildakorik ez dago. Hala ere, birusaren aurkako neurri zorrotzak ezartzen ari dira, [honako hauek](#).

Martxoaren 20tik aurrera eskolak itxi zituzten. Ondorioz, haurrak beraien etxeetan egon dira, eskolan bizi diren umezurtzak salbu. Irakasle batzuen laguntzaz, azken horiek dira proiektuko lanak aurrera eraman dituztenak, ortua eta animaliak zainduz eta ECOSAN deituriko komunak eta ur tankeak erabili eta txukun mantenduz ere. Azken urteotan eraikitako azpiegiturei esker, eskolako bizi baldintzak jasangarriagoak bilakatu dira eta horrez gain, azken sasoiko uzta ere badute elikatzeko. Baina larrialdi egoeraren aurrean, *Good Samaritan* mugikortasun murriztua daukaten ikasleen eskolan, bidea konpontzeko zuten proiektua bertan behera gelditu denez eta momentu honetan artoa ereiteko sasoia bukatu denez proiektu horren diru kopuru bat janaria erosteko erabili beharko dute.



Lesbos, GREZIA

Kikarakada

Zaporeak. Pikpa. Refugee4Refugees



Lesbos ugarteko proiektuaren bitartekariak, bertako errefuxiatu kanpamentuetan, COVID-19ak sortutako egoera aztertzen ari dira. Dirudenez, hezkuntza proiektu berriak sortzen ari dira. Hala nola, Moria errefuxiatu zelaian, bertako errefuxiatuek martxan jarritako eskola aurrera jarraitzen du. Bertako errefuxiatuak, egoera oso zail zein aldagarrian aurkitzen direnez, Kikarakada projektutik, horiekin harremanetan jarri dira nola lagundu zehazteko.



Lambayeque, PERU

Haur eta gaztetxoentzako hezkuntzarako sarbidea eta
elikadura subiranotasunaren sustapena

Compromiso por la mujer elkarte



Reparto de alimentos, a las familias de la escuela de Toribia Castro Chirinos, Lambayeque, Pe.

Osasun-krisiaz hitz egitea oso laburra suertatzen da **Lambayequen** gertatzen ari denari dagokionez. Komunitateko jendeari etxean gelditzeak ondorio oso larriak dakartzkio: janaririk ez izatea, gosea pasatzea, emakumeenganako eta haurrenganako indarkeria areagotzea, lan kargak handitzea eta enplegu mordo bat galtzeaz gain, tentsioa, larderia, beldurra, jazarpena eta prekarietatea areagotzen ari dira ere.

Proiektuari esker, arrosa, olio, atuna, esnea, espagetiak, lekaleak, oloa eta arrautzak dituzten 60 jaki saski jaso ahal izan dituzte proiektuko haurren familiek, inguruko bizilagunek eta inork zaintzen ez dituen trans lagunek baita ere. Halaber, COVID-19ren eraginez elikagaien saskia jasotzerik izan ez duten familien etxeetara saskiak eramanez direla ere garrantzitsua da aipatzea.

